

1. FUNTSEZKO JARDUERAK:

Enpresa bat izan beharrean, zerbitzu bat garenez, gure funtsezko jarduerak ezberdinak dira, batez ere produkzioaren aldetik. Hurrengoak dira gure funtsezko jarduerak:

Produkzioaren aldetik, egin beharreko lehenengo gauza gure enpresarekin kontaktuan jartzean, daukaten arroparen argazkia eskatzea da. Lehenengo balorazioa egiten dugunean, eta arropa egoera onean dagoela adosten dugunean, arropa batuko dugu eta behin eskuetan dugula, azkenengo balorazioa egingo dugu: ea arroparekin geldituko garen edo ez, egoera onean dagoenean ikusita.

Arropa aproposa izateko, hauek dira ondorengo faktoreak:

- Bigarren eskuko arropak egoera onean egon beharko dute, guztiz garbi.
- Bigarren eskuko arropak ezin izango dira apurtuta egon edo ezingo dute inolako bolarik edo markarik izan.
- Bigarren eskuko arropak ezingo dira zikin egon, ezin dute inolako orbanik eduki.
- Ez dugu barruko arroparik onartuko (galtzerdirik edo mediarik ere ez).
- Bainujantzien kasuan erabili gabe edo bizpahiru alditan bakarrik erabiliak bakarrik onartuko ditugu.



Gure enpresak izan dezakeen arazorik handiena bezeroak deseroso egotea da. Hori ekiditeko, egin beharreko funtsezko jarduera bezeroekiko harremana lantzea da, fidagarritasuna landuz eta tratu ezin hobea eskainiz.

Publizitatea beharko dugu ahalik eta jende gehienak eduki dezan gure berri. Hau, lehen aipatu dugun bezala, sare sozialen bidez egingo dugu. Sare sozialak egunean behin eguneratuko ditugu.

Ekonomia eta marketing sailean ikasketak dituzten pertsonak kontratatuko ditugu.

